

Zer da Beldur Barik?

Beldur Barik ez da bakarrik lehiaketa bat. Beldur Barik prozesu bat da. Orain dela bost urte, Berdinsarean lan egiten duten berdintasunaren aldeko teknikariek hurrengo datuak irakurri genituen: Euskadiko salaketen % 42,32 urtetik beherako emakumeenak izan ziren. Bikote esparruko tratu txarrez, gain, indarkeria sexistak hamaika aurpegi ditu eta neskek alderdi askotan paiaten dute, askotan oharkabeen: kanean, klasean, gauean eta familian gertatzen diren eraso eta jazarpen anitzak, alegia. Horregatik prozesu parte-hartzaile bilakatu zen kanpaina bat sustatu genuen. Helburua gazteak gaiari buruz pentsatzea zen eta euren inplikazio aktiboa sustatu.

Beldur Barik programa Emakunde eta Eudelek bultzatuta berdintasunaren aldeko euskal udalen Berdinsarea sarearen barruan. Gaur egun, erakunde Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesa eta diru-laguntza du programak, eta beste erakunde batzuen laguntza: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta EITB.

